

ZARAUZKO ONDEKIDATZEA.¹

*Gipuzkoako jende leyal eta argiak
beti izandu dira gogoangarriak.
Maite dituztelako oitura garbiak
beren guraso ónak anziña jarriak.*

iztueta (Probinziaren kondaira, pág. 230).

Graziazko zazpireun berrogei ta bat garren urterontz, Alonso lenenak Asturias-en erreinatzen zuen garayan, gaur erri bildua dan Aya aldeko Echejaun bi, *Landerbide* eta *Elizamendi*, beren barrutietatik sakabanatu eta galdu zitzaizten larra-beyen billa udako arratsalde eder batean irten, eta or-emen zebiltzala, orduan ugartea zan Zarauz-en. Egoa aldeko ur bazterrera eldu ziran. Bata eta bestea ugartera begira jarri, eta buruan zerbait zerabilzela, luzaro iñillik egon ondoan, iñiltasun ura Landerbidek autsi zuen, bere lagunari itzegiñaz gisa onetan: «¿Badakizu, Elizamendi, zer zañ charrek egun oyetan jotzen nauen? Sinistua nago, ezen Alonsok estu darabiltzkien, Galizi aldeko-moroak, andik ezer ezin dezakeela ezagututa, gure itsas-bazterretara jendea bota, eta zernai gertakari-tarako serbituko lietekeen zenbait gaztelu gogor béretan egiñ, eta Asturiaskoai erru aundiagoaz erasotzeko indar andiagoak deitu eta beretan batuko dituztela. Chit ondo datekeana deritzat, Elizamendi, buruzpide eta asmo oriek ayek erabiltzea. Motrikutik asita Ondarribiaraño Kantauriako itsas-zati onetako erri guziak zernai eraspe eta ustekabeko erasotarako gaztelu gogorrez jantziak daude, eta moroak orietakorik berendutzeko buruzpiderik artuko dutela, eziñ uste liteke. Baña arrantzaleen echola char batzuek, beste ezer agiri eztan ugarte onek, era guzietako erraztasun, gaindi eta bentaja guziak, eskeñtzen dizte. Eraman-ekarriko beren ontziak gordeleku segurua Getariako baiduri garay eta ondigoyan daukate, eta bereala ugarte au eskuetaratzeko beren jendea chalupa ariñetan sartu, eta emen gogor eta esindartuta jartzen badira, nai ainbat eta geyago buruauste emango digute. Bildur aundi onek illeak zutitzen dizkit. —Eta ez biderik askogabe, Landerbide, Elizamendik irausi zion. Orañ esan dezun guzia kezka andiak ematekoa da. ¿Nai dezu ager

(1) Leyenda premiada con el ACCÉSIT en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1884. (V. pág. 246).

degizudan chit arrazoizko zure oarkerak burura dakarkidaten gogorazio bat?—¿Zer izan liteke ori, adiskide Elizamendi?—Zuk gogoan darabiltzuna gerta dedin baño len biotz andiko gere emazte, seme-alaba, serbitzari eta maizterrakin ugarte onetara etorri, eta arrantzale eta inguruko jendearen laguntzarekin Torre-gaztelu gogor bat jaso, eta bear ainbat lagun ondo ezkutesi eta armatuakin bertan jartzea.—¿Eta, oriek gu inguruan artzea gertatzen balitz, begietaratu zion Landerbidek, nola ornituko gifiake bear-bearra litzagukean bazkoniz ugarte añ agor eta soll onetan?—Esango dizut nola, eranzun zion Elizamendik. Eguzkiaren sartaldeko úrak chit estu eta meak dira, dakusun bezela, eta urmeunetik noiznai igaro litezkeanak. Ondo, bada: beti berde dauden mendi oyen egaletako lur gozo eta frututsuak ondeatu, masti eta sagastiak béretan ipiñi, eta ogia egiteko alor eta soroak eraiki, eta onela seguru genzake bear degun otoranz eta janaria.—Chit ona deritzat asmakaria Elizamendi, Landerbidek esan zuen; añ ona, nun, luzapengabe lanari eskúak egotzi bear dizkiogula, zuri esatea eziñ utzi nezakean. Nik ekarriko ditut ogei ta amar argiñ: zuk ipiñitzazu amar zurgiñ eta ogei mutill langille: onekiñ asko da; eta esan degunera.

Lánai bereala asiera eman zitayen, Elizamendiko baso sonatuetako zuaitz lodi eta luzeenak ebaki eta lurreratuaz, eta gizon errutsu ayek alaño berotasun eta zarkúaz beren asmo edérrak betetzen asi ziran, nun, gaurko egunean ere sendo eta chit zutik dagoen, eta bere egille argitsuak *Torre-bakarra-ren* izena ipiñi zioten gaztelu liraña urte beteren bururako egin zuten, eta alde aldean ondar solla zan Zarauzko ugartearen erdian bere anditasun eta edertasuna agertzen zituen. Beretako bulardetsu eta sendoen artean esleitutako berrogei ta amar gizonek lenengo bere goarnida egiten zuten, beren ura zintzo eta ernaitasunik andienaz goaitatu eta zaituaz; eta orra nun egun batez beren soro-lának jarraitzeko prestamenak egiten ziardutela, moroen ontzidi andi eta zenbatetsu batek Machichako-ko ziertza itzultzen beñgoan ikusi, eta onek Getariko baian aingurak botatzea luzatu etzuen. Egun bereko gauean 1200 morok, berákiñ ekarri zituzten chalupetara jasupatu, eta Zarauzko ugartearen lurrartu zuten. Nolanai ere alakorik ugarte onetan topatu uste etzuten moroak; baña arrez geroz *Torre-Bakarra* berendutzea beste bide onragarririk geratzen etzizayen. Erabaki zuten, bada, alde guzietatik gaztelua esitu eta inguratzea; eta indarrez eziñ bazezakeen, edolarik gosez artzeko asmo egíñean, gertaera baterako eta besterako ongien zerizkien prestamenak egin zituzten. Gazteluaren gordetzalle bulardetsuak bigaramon goizean,

alakorik ustegabe, etsai añ bildurgarriz ingurutuak ikusi ziranean, zerbait bildurtu ziran, eta biotz andiko Landerbidek onez oartuta, esan zien: «Ez ikaratu, mutillak; eta Jaungoikoak madarikatutako moro oriek gure gaztelua indarrez artuko dutelako bildurrik ez iduki. Gazteluan gordéak dauzkagun bazkorni eta janariak aitu dakizkigun baño len etorriko da jendea guri laguntzera, eta laster-asko egingo degu jende char orrekikoa. Biotz on, bada, eta zuetako bakoitzak bere lekua erru andiaz gorde dezala».—«Bai, ala Jainkoa, bulardetsu ayek eranzun zuten; Landerbide eta Elizamendi gerekin ditugun artean, moro guzien bildur ezkerá».

Mairu ayentzat patu gaiztoa izan zan jende añ trenkatuak gordetzen zuen baluarte izugarri arekin topo egitea. Uste etzuten ezbearraz lotsatu eta mušindu, eta itsaso aserre kasketatsu baten бага puztuak portitzki erasotzen dioten ugarte agiri eta soll batean luzaro egotea iñola ere on etzizayela ezagotu, eta beren artean zekarden kristau ernegatu baten arte eta trazaz baliatzea gogoratu zitzen. Onek Torre-bakarraren gordetzalleai ojuka itzegin zien, gisa onetan: «Zer egiten dezute or presondegi illun eta triste orretan sartuta? Indarrez ezpada, goseak estututa, auldu, eta nai edo ez, gure eskuetan eman bear zerate, eta jakiñaren gañean egon zaitezte, orduan ongi joango etzazutela. Guziok bizirik larrutu, eta zuen burúak aga luzeen ziertzean sartu, eta denbora chit laburrean daukazuten Torre orren tontorrean ipiñiko ditugu. Bañá baldiñ, bestera, onean ematen bazerate, egiaz suerte inbidiagarria mereziko dezute, eta gure uztarri biguñaren pean, patu oneko izango zerate, ala nai badezute, zeron erligio estuaren aginde gogórrak gordeaz, edota, gure Profet aundiaren Lege eder eta atsegiñaren erara, nai ainbat emazte artuaz. Ondo begiratu eta ikusi zazute zertara obeto dijoakizuten».—

Landerbide bildurgabeak oni eranzun zion: «Ez onez eta ez gaitzez atzituko gaituzute: zuen keina eta burrundadak ikaritzen ez gaituzte; eta luzapengabe lasterka emendik urrutiratzen baziñate, zintzo eta zentzu onekoen señale bat emango zenduteke. Guk libre, gere gañ, eta, prestuak bezela, gere Fede eta sinistantzen itzalpean, eta arras zorioneko egiten gaituzten anziñako gere lege eta usadio edérren estalpean jarraitu nai degu, eta ez arrotzen uztarpe batean, eta guchiago zuenean, mundu guziko urrea ematen baliguzute ere. Emazteai dagokienez, nai ainbat lan ematen dio gutako bakoitzari, Jaungoikoaren Legearen erara iduki genzakean bakarrak, lege au urratzeko tentañian gu erorteko. Eta orañ nai dezutenean etorri eta guri narrua kendu eta buruak ebakitzera igo

zaitezte, zuek bear eta merezi bezela artuak izango zerateta».— Itzaldi añ errutsu eta biziak zér egiñ etzekitenean utzi zituen maoma-tárrak. Ezagutzen zuten, alabaña, bakarrik gosez eskura zitza-keela biotz andiko gizon banaka ayek, eta au denbora luzeko lana zan. Ichura añ gaistoko egoeran moroak guarlankak egiñaz, erreten-askak idikiaz eta bularkayak ipiñiaz zijoazen, eta orra nun Ayamendi, Ernio, Izarraitz-mendi eta inguruetako zortzireun baño geyago mutill, guziak makilla dantzatzen chit trebeak, alzaizurko punta zorrotzdun agayaz armatuak, alkarganatu, eta moroak leorrera ziranetik zortzigarren egunean guziak Zarautzen inguruan jarri ziran. Uste etzuten jende au agertzearekin urduritu eta izututa, moroak ugarteaz uzteko buruzpideak artu zituzten; baño bezperatik ekaitz desegin baten indarrez itsasoa aserretu eta irabiatu zalako, eziñ itsasora irtenik, eta leorrez otadi eta sastrak ez estalitako bidechior char bat baño garai artan ez egonik, etsayari arpegi ematea beste biderik geratzen etzizayen. Bederatzi-garren egunean, chit goiz, Torre-gaztelukoen laguntzalle bulardetsuak beren zardayak danzatuaz, eta pelearako beren irrintziaz, turmoyak bezela bazter guzi ayek ikaratuaz, ugarteaz sartu, eta alaingo bizitasun, erru eta portiztasunaz sitiatzalleen gañera erori ziran, nun iru ordu baño len ayekikoa egin zuten, beren buruak nola bait sasartean gorde zituzten iru besterik bizirik geratugabe; eta oyek gau illunaren babesean Getarira alderatu, eta igeri jo, eta beren ontzietaratu ziran. Ontzieta-koak autsi abartza aren berriarekin, egiñal guziaz aingurak jaso, eta itsas-barrura sartu, eta sekulako emengo aldiak egin zituzten.

Gipuzkoako menditar azkar eta bildur gabeetatik ots andiko joan-ettorri artan ogei ta zazpi galdu ziran.

Torre bakararen lenengo ondekidari garaileak Zarauzko ugartearen jaun eta jabe bakar geratuaz, bérai laguntzera etorri ziran beste zenbatekin bertan geratu, eta *Echezabala*, *Torre-laburra*, *Mendikoa*, *Inchaur-ondo* derizten gaztelu gisako echéak jaso zituzten, onela illargi-erdiaren banderapean bizi diranen eraso guzietatik gordea ugarteaz utziaz. Geroago 1221-garren urtean Errege santu Fernando III.^{nak} Zarauz erribildu Noble eta Leyalaren izenaz onratu zuen, eta orañ Zarauz Gipuzkoako errien charrena ezta.

Torre bakarra deritzan, eta orañ Torre-luzearen izenaz ezagutzen dan gaztelua, gaur Jaun chit argidotar On Franzisko Manuel Egañarena da, eta erri onetan bertakoak eta arrótzak geyen begiratzen dioten echea da.

GREGORIO DE ARRUE.

